

KULTURA GAIAK

IKIMILIKILIKLIK

Azkenaldi honetan euskal jaialdien kartalera zabalean (bertso saio, dantzaldi, kantaldi, errazital e.a.) ageri den jaialdiatako bat dugu aipatu ikimilikiliklik hau. Honez gero bere emandien jarraikian jende mordoxka batek ikusia duelarik ere agian ez zaio behar hainbat arreta eskeini batipat berari buruzko iritzi bat ematera koan edo aipamen bat egiterakoan. Behar bada ez du arrakasta handirik bilduko baina ezio ukatu haiera gaur eguneko euskal herrian agertzen ari den jaialdirik interesgarrietako bat dugula.

Jaialdia Mikel Laboa eta Arza anaiak burutu da eta kanta, txalaparta, poema eta abarrez osatua. Ongi legoke hasiera batetan jaialdiaren zehaztasunak gororako utziz, ikimilikiliklik zer den eta zertan datzan aztertzea.

Esan dezakegu lehenik ikimilikiliklik ez dela hizko jaialdi baten moldetan burututako ikustaldi bat. Ez da Laboren kantaldi soil bat, ez Arzaren poema errazitate bat bakarrik; ikimilikiliklik zerbait gehiago da. Bidekidekaria hitza irakurri anal dezakegu haren iragar-kantaldian (bide-kida-karia) eta bego horretan; beraz ikuskaria eta sentikaria baino gehiago bidekidekaria.

Jaialdi hau ikusten duen edonor «Baga Biga Higa» sentikariak oroitzen da, hau da «Ez duk amairu» taldearen duela lau urteko jaialdiarekin. Badirudi ikimilikiliklik hau Baga Biga Higan aitzomagal berean sortua dela eta haren jarraipen bat izan nahi duela, baina badira bien artean ezberdintasun ugari bata bat eta bestea beste egiten dituztenak. Adibidez Baga Biga talde zabalago eta nahasiago baten lan eta emaitza zen; aberatsago zen bere giza balioetan bakoitzaren izate artistiko eta personalean oinarriturik zegoenez gero.

Ikimilikiliklik hiru gizonen lana dugu, Laboa eta Arza anaiena. Hiruren artean lotura eta batasun handi bat lotu dutela garbi dakusagu. Alde batetik, eta hau beste lantxo batetarako gaitzateke, Laboren egungo kantagintza Arzaren poemel loturik dago hein handi batetan. Laboak jaialdi honetan kantatzen dituen kantuetatik zazpi Arzaren poema dira. Bestetik, eta ikimilikiliklik berezitasun bezala aitortu behar da, bidekidekaria hau diapositiba eta grabatutako musika laguntza aberastua dago, batez ere diaposibaz; beraz entzunaldi bat izatez gain kanpotikako diapositiba eta proiektioek giroten dute bidekidekaria hau, entzun-ikusleak jaialdiaren sentitzera, bidekidekatzera bultzatuaz.

IKIMILIKILIKLIK

Sarrera gisako ideia hauen ondoren eta aurrera jarraituz ongi deritzait jaialdiaren barne-egiturari azterketa bat emateari. Jaialdia bera ohizko bi zatik mugatzen badute ere, hiru saio edo ataletan azter dezakegu gure lan honetan. Sarrera gisa giro bat eman nahi izan zaio jaialdiari, hots egunerokotasunak gure bizitzari eta bizitzako ekintzei ezartzen dien giroa. Ikimilikiliklik ez baita ikuskaria, sentikaria, bidekidekariaren aitzitik kiribilkaria bat. Ikimilikiliklik gure eguneroko bizitzan oinarritutako ekintza bat da.

Hasieran dena da oihu, delhadar, marmar-giro, hats-giro. Egunerokotasuna. Horrela jaialdiari esertleku bat eskaintzen zaio, pausaleku bat entzun-ikusle bakoitzaren baitan. Ondoren argi hitza

LAGUN

gure
gure
gure
gutuna

eta txalapartaren oihu bilutsa egun argiz-bizi mamiz.

Ondoren Laboren lehen kanta saioa; hiru abesti. Lehen abestia kanta zahar bat da: «Xori erresinola». Ondoren «Haize hegoa». Monzonen hitzal eta aide polit bat. Biak oso bitxiak izanik, sarrera ezin egokia da Laboren kantaldi quizariko. Laboak begi eta zentzu sakon bat izan du beti gure kantutegi xaharreen xurgatzeko eta gure kantarik maitatien eta hungarriaren arakatzeko. Hirugarren kanta Arzaren poema bat da: «Askatuko zaituen zai bazaude...». Kanta hau taxu berrikoa du Laboak; kanta dardartia eta nirekiko itsusia ere bai hilotzaren kateak lez. Ironia zimur bat dario kanta honi eta abesti balioa baino poema balioa gehiago du; hots irakur mailako poema da oehienbat.

Laboren jarraikian eta jaialdian zehar sarri gertatzen den bezala Arzaren poema irakurketa dator. Poema irakurketa hau diapositibaz laundurik egiten da eta entzunarri bezain ikuskarri gertatzen da. Hiru poema errezitatzen ditu Joxanek bere lehen saioan: «Joxeren emaztea», «Maitasuna kantatzeagatik» eta «Bat, bi, hiru...». Arzaren poemek, bere hiru liburuetan sakabanatuak, esoresibo indar handia dutela aitortu beharra dago. Gainera Joxan Arza poeta fina izatez gain errezitatzaile enoki eta aparta duu. Horrela plastikoki espresioa ondo haino hobeto landu du Arzak bidekidekaria honetako ideia poetikoak eta beste, sentipen mailan beharientzat ongi xe-

«Xirristi mirristi
gerrena plat
olio zopa, kikirri salda
urup
edan edo klik
ikimilikiliklik».



hetuaz. Benetan ederra bigarren poema, hots dioenean

«maitasuna kantatzeagatik
ixiltzen
gorrotatzen gaituzte
maitatzeagatik
gara deserriratuak geure herrian».

Ondorioz gure MIN BIZIA
BIZI MINA.

Arzaren lehen poema irakurketa bukatu orduko Laboren bigarren kanta saioa dator eta honekin aberastasun eta esanahi aparteko ekinaldi bat hasten da lehen zatiaren bukaera arte. «Zamaroa» izeneko Laboren kanta ederra da benetan

«oinarria ez dago tinko
gaurko zanpatuak
biharko garaile».

Biharko egunari begira bizi gara, bihar ederrago baten promesa sinetsiz baina oraindik haur hat bezain ahulak gara; gaur oraindik haurtzaroan bizi gara

KULTURA GAIAK

«xi
xeiec
ou o uie
auauua ua
upapa zara
ospabie hartzaixu»

(Euskara «patua»)

Baina gaurko eguna bizitzeak badi-
tu bere baldintzak, eskakizunak. Gure
itxaropen haziak fruiturik ekarriko ba-
du. LANAREN lurtean ezarriko izan
beharko du. Adorez, amorez, izerdiz,
indarrez eta batez ere GIZONKI egin-
dako lanak askatuko gaitu. Lanaren bi-
dez lortuko dugu hilobietakoa baino
zerbait garestiago eta baliosago den

koa. Laboari dagokionez «Bestarik eza-
gutu ez eta» eta «Maite ditut maite»
abestiak pasadizoko abesti bezala har-
daitezke eta geliegizko bezala juzga.

Bigarren zatian eta Gernika baino
lehen Laboaren sei abesti eta Arza-
ren hiru poema eskeintzen dira. Saio
honek, oro har, berritasun guti ageri
du. Abesti eta poema bakoitzari beren
balio partikularra kendu gabe noski,
zati honetaz ez du beste zenbait zati-
ren loturarik. Zati honetako abesti-
taz zerbait esatekotan, «Izarren hau-
tsa» abestia indargabe eta motel ger-
tatzeko delako Laboaren abotsan esango
nuke. Alderantziz azken kanta «Nahiz
eta heriotza» oso eder eta sakona da:

amiltzen dira hitzak. Hitz arrak, hitz
emeak

ama emea da
emea ez da ama


Hitzen apainduria eta orrazkera oihar-
tzen libre batekin, kontzientzia aska-
tu batekin nahasten da.

Ttapa ttapa
ttaka ttaka
Txalaparta.

Ondoren GERNIKA. Abesti drama-
tikoa. Laboaren suzko lorea. Gernika-
ren indar eta bortzak sua eta hotza
dakar entzule bakoitzarengana. Hitzen
kaskada bihotz taupadekin bateratzen
da. Laino gorriak agertzen dira. Hitzak
xori bihurtzen. Heriotz haize batek
ekarritako xoriak dira. Hitz bat hautsi
da: xori bat erori da. GERNIKA.

«Haika mutil
jeiki hadi».

Eta jeikitzearekin batera egunoroko
bidekidekaria. Ikimilikiliklik. ALTZAK



baketza. Lanaren bidez eskeiniko
diogu ondo libratzeari eguzkiaren pean
egingo zaien omegaldirik handiena.
Lanaren bidez iritxiko gara bizitza zer-
tarako den jakitera, gure ama jakin
gabe hil bazaigu ere.

Beraz langile eta burrukalari gara;
eta izan ere izate honen baldintzapen
orokorrekin garelako, inoiz sistemaren
MAKINAK gutakoaren bat bere mende
har dezake galtzaila eginaz, baina une
horretan besteok, poetak dioen beza-
la, BERRETERAETXE berri horrekin el-
kertuko gara

«Galdu duenarekin elkartuko naiz
baina ez,
sekula ere ez
jokatu ez duenarekin».

Honenbestez bukatzen da jaialdiaren
lehen zatia. Esan bezala zati sentiko-
rra, osoa eta landua da azken zati
hau. Diapositiba eta musika aldetik
Baga Bigaren girokoa da, haren taxu-

bizitzari egin zaien kantarik ederrene-
tako bat dela esan behar:

«nire hortzetan hiltzen den
ene azken antsia
beste batenetan loratuko den
lehen irria izango da».

Gainerako kantak aski ezagunak dira.
Arzaren poemetar. «Eskirrolaren aita»
izenekoa aipatu behar da bere berrit-
tasun eta gaurko egoerarekin duen
zerikusiatatik.

Jaialdiaren azken zatira iritxi gara;
Ikimilikilikliklen zatirik bikainenera,
gailurrera. Txalaparta, diapositiba eta
abestien eskutik Ikimilikilikliklen para-
disura helduko gara. Txalapartaren
kolpe askatzailearen konpasean zihait-
tzen hizkuntza entzuten da, arbasoen
hats beroa sentitzen. Hormaren gai-
nean argiaren biribilketa. Hitzak amo-
diozko burruka batetan hasten dira;
arrak emeen aurka, gerize sakonetan

San
Isidro
Saria

Cámara Oficial Sindical Agra-
ria deritzanak hirugarren SAN
ISIDRO SARIA antolatatu du. Le-
hen ere emana dugu sari honen
berri.

Halere, bidezko denez, berri-
ro emateko eskatu zaigu. Pena-
gagarri litzateke inork ez parte
hartzea.

Hiru sari ipini dira: 50.000
peza lehenengoarentzat; 30.000
bigarrenarentzat; 20.000 hiruga-
rrenarentzat.

Nekazaritza inguruko mun-
duaz egin behar da lana: saia-
kera, nobela, ikerketa, antzerki
edo bertso moldean egin daite-
ke. 100 folioko lana egin behar
da.